

AGUSTIN PEÑA -KAXKOKO ALKATEA AURTENGO KARMENGO JAIETAN

## “Hernaniko lehenagoko festa giroa asko botatzen det faltan”

■ Aurten Agustin Peña izendatu du Alkate Kaxkoko Auzo Elkarteak, Hernaniko festa giroan hamaika kontutan ibilitako gizona.

■ Jaiak tabernetan sartuta pasatzeari buruz dio “festa kalean egiten da eta festak festei jarraitzeko dira”.

■ Gaur 12:00tan Peña Okindegiaren parean jasoko du aginte makila Adeli Erdoziaren eskutik, lehengo urteko Alkatea zena.

AGUSTIN Peña jasoko du aurten Kaxkoko jaietako aginte makila. Kaxkoko Auzo Elkarteak Kale Nagusiko pertsona ezagun baten bila zebilen Alkate izendatzeko eta Agustin Peña aukeratu dute. Hernaniko Peña etxean jaioa, betidanik Kale Nagusian bizi izan da eta herriko festen inguruan gauza askotan parte hartutako gizona da. Orain arte Karmenak Kardaberaz kalean bakarrik ospatzen ziren baina aurtengoan Kale Nagusikoekin batuko dira.

### ■ HERNANIKO KRONIKA: Nola hartu zenuen berria?

AGUSTIN PEÑA: Nik ez nuen inolaz ere espero, San Joanak pasa ondoren esan zidaten eta nik besterik aurkitu ez ote zuten galdetu nien. Ez dakit zer egin behar dudan ezta zer egingo didaten ere.

### ■ Zergatik zera hain ezaguna kalean?

Ez dakit. Igual txikitatik kalean bizi eta festetan ibili izan naizelako, festazalea izan naiz beti. Txikitik umeentzako aurrekuan hasi nintzen eta handik aurrera hamaika gauzetan ibilia naiz, zaku karretan, karrozak egiten, Xalartako txaranga eta sozieda sortu genituen, futbol txapelketetan, pelotan, kalderotan, parodiak eginez, Hernaniko Scola Cantorumean, 20 urtetan tanborradan aritu nintzen, eta abar.

### ■ Egiten zenituzten karrozak oso ezagunak izan dira, ezta?

Hamazazpi urte nituela egin genuen aurreko karroza, lagunak elkartzen ginen eta gaia aukeratu ondoren nola



Agustin Peña mekanikoa da ofizioz, baina festa zalea afizioz.

edo ahala egiten genituen karrozak. Aurrenekoari *Los consacos* izena jarri genion. Hurrengo urtean bonberoei buruzkoa egin genuen eta handik aurrera karroza handiak egiten hasi ginen: sagarrari omenaldia; hawaiianoena; Urumea ibaiari omenaldia, presa, bizirik zeuden amurraiak eta guzti... Hernanin ez ezik inguruko herrietan ere atera genituen karrozak.

### ■ Zer iruditzen zaizu gaur egungo Hernaniko festa giroa?

Oraingo giroa ez zait gustatzen. Gazte jendea dena eginda ematen zaio, karrozak, txaranga, eta abar, eta hala ere ez dute festetan parte hartu

nahi. Gazteek paso egiten dute, ez dakit zergatik den, ilusio faltatik edota festa tabernetan eta gauze egitea gustatzen zaielako. Nere iritziz, festa kalean egiten da eta festak festei jarraitzeko dira, tabernan geratzeko ez egin festarik. Edo bestela tabernak bakarrik ireki eta listo.

### ■ Nolako zen garai bateko Kaxkoa?

Lehen Kaxkoan oso giro berezia zegoen, giro horretan ibiltzen ginen. Udaran 6etatik aurrera kalera atera, exeri, jan, edan eta berriketan ibiltzen ginen. Karkaban sagardotegi bat zegoen, apustuak egiten genituen tokan eta igelaren jokoan, eta parrilan janaria erretzen genuen. Itxuraz ere

## KONTATZEKOAK

### ■ Futbol zelaia

“Paradorrean jolasten genuen futbol txapelketa bertan behera gelditu zen obrak zirela eta, baina Atsegindegian futbol zelai bat egin genuen. Lehen han baratzak eta kriston zuloak zeuden, aitzurrak hartu, dena txukundu eta jarraitu egin genuen txapelketa”

### ■ Dirua atera

“Dirua ateratzeko Solac markako plantxa bat zozketatzen genuen, erriak pezetan saltzen genituen eta jendea lata emanez lortzen genuen behar genuena”

### ■ Hawaiianen karroza

“Luistarren eta Mariaren Alaben kongregazioek esan zuten gure hawaien karroza lotsagarrikeri bat zela, arropa gutxiarekin, kolorez jantzita eta abesten gindoazelako. Baina gehiengo oso kontentu zebilen”

### ■ Pelikula

“Pelikula bat ere egin genuen, bertan 1966. urteko San Joanetako festa giroa agertzen da. Hori garai batean bi aldiz bota genuen jende aurrean, jende mordoa bildu zen. Orain bideora pasatzen saiatzen ari gara eta baliteke berriro ere botatzea”.



Emazteak dio Agustin 'txarangero' hutsa dela. Zergatik ote?

asko aldatu da Kaxkoa, lehenago feria Plaza Berrian egiten zen eta astoak-eta ikusi zitezkeen bertan.

### ■ Zer da guzti horretatik faltan botatzen duzuna?

Alaitasuna eta bizitza soziala

botatzen ditut gehiena faltan, jendearekin hitz egin eta harremanetan egotea. Orain jendea tabernetan sartzen da eta edaria eskutan dutela bata besteari begira jartzen dira ezer esan gabe. □

www.kronika.net  
HERNANIKO  
**kronika**  
Intemetan helbide berrian

PROKOLOR ZENTRUA  
**PL**  
Pinturas  
**Landaribar, s.l.**  
▶ Pintatzeko ekipoak  
▶ Industri eta dekoraziorako pinturak  
▶ Pintatutako paperak  
Kardaberaz 45 - Telf.: 943 55 21 31 - Hernani

**AMEGAR**  
Etxe tresnak  
Altzariak  
  
Elektrogailuak  
TB- Bideoak  
HI-FI-Opariak  
Sukalde altzariak  
Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 30

**GSE**  
Lan aholkularitza  
Fiskala  
Kontablea  
Tel.: 943 550254  
Faxa: 943 335801  
Atzietza 51 - behea 20120 Hernani

Catalana Occidente  
  
Aseguruak  
Bautista Biurrarena Etxegoien  
Kardaberaz 40 - behea  
Tel.: 943 332440  
Faxa: 943 556602  
Mobila: 610 292701  
20120 Hernani

**IPARRA**  
SUKALDEAK  
Zikuñaga, 61 - lokala zbk. 7  
Ibarluze poligonoa  
Tel.: 943 55 67 60  
Fax: 943 33 19 75  
20120 Hernani



Plenoko bozketa bat. EB eta EA-EAJk batera gobernatuko dute Udaletxean.

## Gobernu Batzorde eta Organoetako ordezkariak onartu ditu legegintzaldiko lehen Plenoak

■ Gobernu Batzordea EA-EAJko bost kidek eta EBko batek osatuko dute ■ Batzorde informatzaileetan 2 kide izango ditu EA-EAJk, eta bana PSE-EE, EB eta PPK eta Ongintza eta Kirol Patronatuetan, berriz, 4 kide EA-EAJk, 2na PSE-EE eta IUk eta 1 PPK.

ASTELEHENEAN egin zen legegintzaldiko lehen Plenoa eta Gobernu Batzordeko kideak, Batzorde eta Organoetan alderdi bakoitzak izango dituen ordezkariak eta Pleno eta Gobernu Batzordeen eguna eta ordua zehaztu zituzten besteak beste. Gobernu Batzordea sei zinegotzik osatuko dute: Joxan Rekondo, Andoni Amonarriz, Iñaki Arratibel, Antton Costa eta Jose Antonio Cuesta EA-EAJtik eta Txema Mercado EBtik.

Batzorde informatzaileetan 2 kide izango ditu EA-EAJ koalizioak eta bana gainerako partiduek: PSE-EE, EB eta PPK. Patronatuetan, berriz, 9 kidek behar dute eta banaketa izango da: 4 kide EA-EAJ koalizioak, 2na kide PSE-EE eta EBk eta kide bat PPK. Zein Batzorde izango diren eta

bakoitzeko buru zein izango den gaur bertan jakitera emango dute, Joxan Rekondo Alkateak Kronikari jakinarazi dienez. Oraingoz Kirol Patronatuko burua nor izango den eman dute jakitera eta Iñaki Barrio izango da, orain bi legegintzaldi bezalaxe.

### Pleno eta Gobernu Batzordeak eta soldatak

Plenoak hileroko bigarren ostegunetan izango dira, arratsaldeko 18:00etan. Gobernu Batzordeak, berriz, asteartean izango dira arratsaldeko 17:30etan. Plenoak onartutako beste puntu bat Udalbatzako kideen soldatei eta Udal Talde politikoei dagozkien diru kopurua izan da. Gai honek sortu zuen eztabaidarik haundiena. Jose Morcillo PSE-EEko buruaren hitzetan oposizioari dago-

kion kopurua “eztabaidagarria da” eta gehiago negoziatzea eskatu zuen. Txema Mercado EBren izenean esan zuen kargu politikoak liberatzea nahitaezkoa dela ondo gobernatzeko “bestela teknikarietarako behar-ko baita diru gehiago”.

ALKATEORDEA:	Iñaki Arratibel.
ORGANOETAKO ORDEZKARIAK	
- <b>Hernaniko Industrialdea, SA:</b>	Joxan Rekondo (EA-EAJ) eta Andoni Amonarriz (EA-EAJ).
- <b>Hernani GAS, SA:</b>	Joxan Rekondo, Natali Ugalde (EA-EAJ), Jose Perez (PSE-EE), Txema Mercado (EB) eta Pedro Ignacio Gandasegui (PP).
- <b>CEEI Bic Berrilan SA:</b>	Txema Mercado.
- <b>Añarbeko Mankomunitatea:</b>	Andoni Amonarriz eta Antonio Costa (EA-EAJ).
- <b>San Markoseko Mankomunitatea:</b>	Antonio Costa eta Jose Antonio Cuesta (EA-EAJ).
- <b>Behemendi:</b>	Natali Ugalde.
- <b>Euskal Fundoa:</b>	Txema Mercado.

## Bildu Hernanik “demokrazia falta nabarmena” dagoela salatu zuen asteleheneko Plenoan

■ Mertxe Etxeberria Alkate ohiak esan zuen beraiei dagozkien lekuetan daudela zenbait zinegotzi “estatu neofaxista baten ondorioz eta beste batzuen laguntzaz”.

JOAN den asteleheneko Plenoan Bildu Hernani plataformako zerrendakide batzuk izan ziren, eta Mertxe Etxeberria, azken legegintzaldian Alkate izan denak hitz egin zuen Pleno bukaeran. Bere hitzetan, “demokrazia falta nabarmena” dago hemen eta berak egon behar zuten tokietan daude zenbait zinegotzi. Etxeberriak esan zuen estatu neofaxista baten estrategiak utzi dituela berak legez kanpo eta “beste batzuen laguntza” daukala. Datozen lau urtean hor egongo direla gaineratu zuen.

Pleno ondoren Mertxe Etxeberriak adirezpenak egin zituen: “botoekin lortu ez dutena demokraziaren kon-



Mertxe Etxeberria eta Bildu Hernaniko kide batzuk Plenoan.

trako kolpe batekin lortu nahi izan dute. Eta gainera, Udaletxean sartu eta lehenengo

gauza izan da, atak itxi eta udaletxea blindatzea” esan zuen. □

## ■ HITZ BITAN

### ✓ KARMENGO FESTAK KAXKOAN

**Andre Kalean eta Kale Nagusian festa gaur.** Karmengo Festak gaur ospatuko dituzte Andre kalean eta Kale Nagusian. Goizeko 09:00etan izango da diana eta ordu berean meza dago Parrokian. Goizeko 10:00etatik 12:00etara umeentzako jolasak izango dira bi kaleetan eta 12:00etan Agustín Peñari emango diote Kaxkoko Alkate makila, Peña okindegi parean. Ondorenean, Kaxkoan aurten ireki dituzten komertzio berriei omenaldia egingo diote. Nectar kosmetika denda, Luber bideokluba eta Arkupe kafetegia dira omenduak. Eguerdian bazkaria dago Plaza Berrian eta arratsaldeko 17:00etan karta joko kalean bertan, garai bateko ohiturari utsiz. Arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara gaztelu puzgarriak egongo dira kalean eta 18:30etan txokolatada dago umeentzat Plaza Berrian. Arratsaldeko 20:00etan, sardina jatea eta sari banaketa daude eta trikitixak emango die bukaera aurten Karmenei, Andre kalean eta Kale Nagusian batera egingo diren lehendabizikoei.

### ✓ JUBILATU ETXEA

**Donibane Garazirako zozketa gaur.** Hilaren 23ra-ko bidaia antolatu du Jubilatutxek, Donibane Garazira. Plana da Donibane Garazira joan eta Orreagan bazkaltzea. Sortea gaur egingo da, 17:00etan Jubilatutxek.

### ✓ MANTENIMENTUKO GIMNASIARAKO IZEN EMATEA.

Jubilatutxek irekia dago mantenimentuko gimnasiarako izen ematea. Datorren kurtsoan kiroldegian emango dira klaseak eta azken urteetan jubilatutxek asko apuntatu izan da. Astelehen, asteazken eta ostiraletan eman liteke izena, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

### ✓ EUSKO ALKARTASUNA

**Hiri Batzarra bihar.** Hernaniko Eusko Alkartasunak Hiri Batzarra deitu du biharko. Arratsaldeko 19:00etan Alkartetxean.

### ✓ SAN JOAN KONPARTSA

**Konpartsako argazkiak Etxarrin.** San Joan konpartsako argazkiak eskatu dituztenek Etxarri argazki dendan dituzte.

### ✓ KOTXE KARABANA

#### Egunkaria zenetik Egin zenera kotxe karabana.

Kotxe karabana pasa zen atzo Andoaindik hasi eta Hernanira, Egin eta Egunkaria itxi izana salatzen. Atzo betetzen ziren 5 urte Egin egunkaria eta irratia itxi zituztela, eta egun hori aprobetxatu nahi izan zuten protesta egiteko. Kotxe karabana Egin eta Egunkariako langile ohi-ek deitu zuten. Hasi, Martin Ugalde kultur parkean egin zen eta bukatu Egin zeneko atarian, Hernaniko Eziago industrialdean. □



### IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai zentroan. 3 gela dauzka eta berritua dago. Deitu: 943 330 927

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar baduzu deitu: 656 78 64 15 (Kepa)

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Eguez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- ▶ Gaez: Orue Lasarte. Jaizkibel plaza 2 ☎ 943 362652

### I. URTEBETETZEA

#### Kristina Illarramendi Beristain

2002ko uztailearen 15ean hil zen

Gure artetik joan zela urtebete pasa denean, senideek, ezagutu zenuten guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu, eskainiko diogun mezara etor zaitezten.

#### Gogoan zaitugu

Urtebetetze meza **Igandean, uztaileak 20**, goizeko 11:00etan, Floridako San Jose Langilea parrokian.

Hernanin, 2003ko uztailearen 16an.